

G V E R O
B I P A R T E T A N
partitua eta berecia,

L E H E N B I C I C O A N
E MAITENDA, ADICERA,
cenbat calte eguiten duen, luça-
mendutan ibiltceac, eguitecoen
gueroco utzteac.


*Bigarrenen quidecenda, eta aicinotcen, luça
mendua. vetric, bere hala, bere eguin bi,
deari, lothu nabi çalcana.*

*Esleitua saindicit, Ellicaco Doctor etaric-
eta liburu debocinozco etaric. Axular Sa,
raco errotorac vildua,*


*Ne tardas converti ad Dominum, & ne differas
de die in diem, Eccles. 5.*



BORDELEN,
G. MILANGES Esregueren Im-
çallea baithan.
M. DC. XLIII



AXVLAR
1643 — 1943



FRAGUILLI

C-549
F-62


AXULAR

1643 - 1943




IL A ÉTÉ TIRÉ DE CET OUVRAGE
CINQUANTE EXEMPLAIRES DE LUXE
SUR PAPIER VERGÉ BOUFFANT
NUMÉROTÉS DE UN A CINQUANTE.





TROISIÈME
CENTENAIRE
du GVERO


1643 - 1943



Bartepieta Apapak
Zulueta Intiki Japanyani

1950-X-11.

Bartepieta



LIBRARY
OF THE
BUREAU OF
INDUSTRIAL
AND
LABOR RELATIONS
DEPARTMENT OF
LABOR

HOMMAGE

A

Pedro Daguerre de Axular

C'est en 1643 que parut le « Guero », le premier chef-d'œuvre de la littérature basque.

Des fêtes solennelles auraient, en temps normal, marqué le troisième centenaire de cette parution.

Il a fallu se contenter de manifestations plus modestes : l'apposition d'une plaque sur l'église de Sare, dont il fut le reconstruteur, précédée d'une messe spécialement célébrée à cette occasion, et la publication de la brochure collective que voici.

Voici le texte de cette plaque :

SARAKO ERRETOR

PEDRO DE AXULAR

ELIZA HUNEN BERRITZAILE

« GUERO »

LIBURUAREN EGILE 1643-AN.

Sous une couverture artistique due à notre ami Eizagirre, on trouvera des articles rédigés par des écrivains particulièrement avertis.

M. G. IRATZEDER a composé un poème intitulé Axular ou le Chant de la Terre. En rythmes d'incantation, on y évoque la captivante terre basque, un peu trop belle avec

les élans sauvages de ses montagnes et vallées grouillantes de vie. A ce corps débordant de puissances instinctives, il faut une âme gigantesque, humaine et divine, capable de le dominer dans une sage harmonie. Axular est le modèle de ceux qui travaillent à forger une telle âme pour que les Basques aient la maîtrise du gero, c'est-à-dire de l'avenir.

M. G. LERCHUNDI a créé une belle mélodie, d'allure vraiment euskarienne, pour accompagner la dernière partie du grand poème d'Iratzeder (Diharce).

M. J. ELISSALDE, de l'Académie de la langue basque, nous présente la Biographie d'Axular. Naissance à Urdax (Navarre) à une date inconnue, première tonsure en 1584, ordination sacerdotale à Tarbes avec incardination au diocèse de Bayonne en 1596, cinq ans de séjour à St-Jean-de-Luz, nomination à Sare en 1601, compétition de Jean de Harostegui, installation paisible à la cure de Sare de 1609 à 1641 au moins, démission en faveur de son neveu vers 1642, mort le 8 avril 1644, l'année après la publication de son grand livre « Guero » : tel est le résumé de l'article substantiel que son auteur a signé de son nom de guerre « Zerbitzari ».

M. G. LACOMBE, de l'Académie de langue basque, chargé de cours en Sorbonne, nous donne en français d'intéressantes notes sur « le Guero et ses éditions », « le dialecte d'Axular », « Axular et le prince L.-L. Bonaparte ». On y trouvera des renseignements peu connus et certains inédits.

M. P. LAFITTE, secrétaire de « Gure Herria », a été chargé d'analyser l'ouvrage d'Axular et de donner une note sur les citations qui y abondent. Selon M. Lafitte, le « Guero » a été publié dans un désordre évident. Axular avait annoncé deux parties : l'une contre le délai de la conversion, l'autre sur la pratique de la vertu. Il semble que des éléments de cette seconde partie (chapitres concernant certains péchés capitaux) ont été maladroitement mêlés au reste. En bref, les 60 chapitres du livre nous disent de ne pas renvoyer à plus tard notre retour

à Dieu ; car attendre, c'est miser imprudemment sur un avenir incertain, et s'enfoncer dans le mal ; notre état de péché attriste le ciel et la terre, et nous rend malheureux en ce monde et en l'autre ; luttons plutôt contre la paresse, le blasphème, la colère et l'impureté.

Mgr J. SAINT-PIERRE, évêque de Gordus, nous dit en un basque prestigieux, ce qu'est le style d'Axular : une langue populaire abondante, sans prétentions puristes, s'élevant sans effort au souffle des grandes thèses, une langue colorée, concrète, pleine de saveur et d'harmonie.

M. L. LÉON, curé-doyen d'Ustaritz, auteur basque bien connu, a eu l'amabilité de nous offrir un conte folklorique du terroir : Ce qu'était devenue l'ombre l'Axular. Chamisso a raconté jadis l'histoire de Pierre Schlemilh, l'homme qui avait perdu son ombre. Pareille aventure serait arrivée à notre Axular : descendu avec des compagnons dans une grotte infernale pour surprendre les secrets de Satan, il aurait consenti à ce que le démon s'emparât de celui qui passerait le dernier à la porte de sortie ; resté le dernier, il sortit au moment où le soleil éclairait l'entrée de la grotte, et désigna son ombre comme victime résignée. Satan s'en saisit avec rage, et depuis, Axular est devenu itzal gabeko apheza !

Pour terminer, nous publions quelques « Pages d'Axular », en orthographe actuelle, et nous les faisons suivre de la signature autographe du grand auteur, reproduite d'après les manuscrits de Sare.

Nous aurions voulu faire plus et mieux.

Du moins n'aurons-nous pas laissé passer totalement inaperçu ce Troisième Centenaire de l'éternel « Guero », orgueil de tous les Basques qui aiment encore à penser, prier, lire, parler, écrire et chanter dans leur langue nationale.

AINTZINA.

St-Jean-de-Luz, le 29 septembre 1943,
en la fête de St-Michel, patron
d'Euzkadi.



ENE APHEZGAI ANAIERI

AXULAR

edo Lurraren Kantua



Olhetako gainetan Larrun zolaraino
Zoin ardura nindoan larrez larre kantuz,
Bilhotza hegal eta behakoa lanho,
Amets-lur zabal hortan gogoa alhatuz !

Etche kachko aphalen, haitzen eta gainen
Gozoari begira eta hurrupaka,
Olhetako chokorat noiz othe naiz ganen
Patarrez patar eta erreka ?

Ez othe naiz geihago arrats aphalean
Larrunak choraturik haitz pean jarriko ?
Gaineri amets-khea dohakotenean
Ez othe zait geihago arima urtuko ?

Atseginez urtua, gozoz lanhotua,
Erdi lo, erdi zoro, iratzen artean,
Noiz othe dut entzunen Lurraren kantua,
Gauak azken lillurak zeruan histean...?

.....
.....

Oi orduan da gozo Larrungo pe hoitan
Eskual-lurrari soinu eta amets-kantuz
Petik darionean arima airetan,
Azken arrotz urhatsak urruntzen aditu..

Orduan... ilhargia gorri den gauetan,
Gaupean ichildurik Sarako ezkila,
Aize sistuka eta gaineri herrestan
Axularren itzala larretan dabila..

Hantchet Eskual-Arima atcheman orduko,
Zelaiez zelai eta erreka erreka
Biak gauez gau arin, mendiak lekuko,
Zirimolan doatzi elgarri besarka.

Zirimolan, airean eta zirurika
Bira bira doatzi amodio irriz
Iratzeri fereka, gaineri musuka,
Otheak harrotuz ta haitzak daldaraziz.

Zirimol errabian, zorion auhenez,
Etchez etche gau dantzan lerratuz dabilta ;
Aitasok chutiturik, « Aitaren » eginez,
Su ondolik diola : Haurrak, has othoitz.

Izarrak su pindarka, haitz eta erreka
Atsegin marrumaka, gain guzietarik
Arbasoen gogoak, zintzurtzat harrokak,
Tanpez irrintzinaka dauzkiotelarik,

Su-zirimolan eta inguruz inguru
Larrungo buruari sutan doazkote
Airez aire gateko eta zeruz zeru,
Zirimiromiolan Jainkoratu arte..

*
**

Othoi, Axular, Eskual-Herrien bethiereko Apeha,
Galerna haizez, izar su berrozugar zadazu bihotza,
Gaupetik entzun zure gogoaz goraki nadin gaur mintza.

Hedoiatarik gorago gauaz adituz zure izena,
Hezurak gozoz urthuak dago amets-nigarrez Larruna,
Ez baitu segur ahanztekoa zoin maiz zitzaizkon igana.

Argia gabe Jainko odola bihotzeratu ondoan,
Oihanpe eta larreri goiti barnea sutan zindoan,
Beha ta beha baitzinauden han Larrungo mendi kachkoan.

Iduzkipean handik ikusiz Ezkualdun etche churiak,
Itsasoaren urdin zabala, pentzeak eta mendiak,
Gozoen gozoz lilluratuak zinagozkitzun begiak.

Lilluratuak bai eta laster bihotzmin lanbroz betheak
Orhoituz peko zelai, itsaso eder hoitako semeak
Zoin jakitatez gabeak diren eta lurkeriz goseak.

« Eskual-Herriak egin ditutzun zeruetako Jainkoa,
Entzun zazu ba nere egungo aphez deihadar beroa :
Zabaldur gabe ez utz hiltzerat Eskual-Arima gaichoa.

« Urrikal ziten, ene othoitzak zutaraino joan ditzala
Suz, fedez, gozoz gairdika bethe Eskual-bihotzen zabala
Eta Herri hauk busti dituen Kristo Jaunaren odola.

« Orhoit Lur hunen zutaratzeko aphez nauzula hautatu,
Oi, zuri esker, goi-jakitatez eta iduzkiz sugartu
Asmu berriak Eskual-mintzoan nik sartzen ahal banitu !

« Bai, Jauna, onhar Eskual-Arimak egiten dautzun oihua
Menderen mende, zerurat zabal, Eskuarak garbi zaindua,
Jaun Goikoraino helaraz dezan Eskual-Lurraren kantua. »

.....
Haize burrunba, ortzi-karraska, Larrungo gaina su pindar..

.....
Eta hedoen artetik jautsiz itzultzen zinen, Axular,
Bihotz gogoak Jainkoz betherik, dena su, amets eta khar.

Gaua orduko bazaudelarik chirola sistuz artzainak,
Ostatuetan kantu orroaz rau-de-rau itsas gizonak,
Supazterretan boz-daldaraka amatchi gazte izanak,

Zuk belhauniko, lantuz Eskuara, zabaldur Eskual-gogoa,
Burua sutan moldatu duzu, Axular aphez beroa,
Hil-hurren ziren Eskual-Herrien bethiereko Geroa.

Saran dugu, Axular, zure hil-erhautsa,
Bihotz barnean aldiz zuk piztu Ametsa,
Zu lagun mendez mende
Eskualdun baikaude
Oi Axular !

Gora Eskual-Gogoa, gora Jaun Goikoa !
Gora gora Eskuara, gurea Geroa !


Huna mende berriak argitzen zaizkola
Eta Eskual-Gogoa herrestan dabila,
Orai beharko baitu
Hil edo gaztetu
Oi Axular !...

Hasi duzun lanari bihotz osoz lotuz,
Gu ere aiko gare, pertsuz eta kantuz,
Eskualdunen bihotzen
Eskuaraz zabaltzen
Oi Axular !...

Suz ta zeruz Eskuara aphainduko dugu
Nausi chutitu eta egin dezan oihu :
Dohala ba erdara
Herritik kanpora !
Oi Axular !...

Kantuz jinen gitzaitzu Eskualdun Anaiak :
Ikasle, laborari eta aphezgaiak,
Eskual-gogoa sutan
Altchatuz airetan
Oi Axular !...

Denak soinu, orduan berpiztuko zare,
Iduzkia soineko, Larruna aldare,
Eskual-Lurra bethiko
Jaun Goikoratzeko
Oi Axular !
Gora Eskual-Gogoa, gora Jaun-Goikoa !
Gora gora Eskuara, gurea Geroa !




A X U L A R

edo Lurraren kantua

(astiki)


(G. L.)




Sa - ran du - gu, A - xu lar, zu - re hil er - hau




tsa, Bi - hotz barne - an al - diz zuk




piz - tu A - me - tsa, Zu la-gun mendez mende Fs-



kualdun bai - kau - de. Oi A - xu - lar! Go-ra EskualGo



go - a ! Go-ra Jaun Goi-ko - a ! Go - ra go - ra Es-



kua-ra, Gu - re a Ge - ro a !

II

Huna mende berriak argitzen zaizkola
Eta Eskual-gogoa herrestan dabila,
Orai beharko baitu
Hil edo gaztetu.
Oi Axular !...

III

Hasi duzun lanari bihotz osoz lotuz,
Gu ere aiko gare, pertsuz eta kantuz,
Eskualdunen bihortzen
Eskuaraz zabaltzen.
Oi Axular !...

IV

Suz ta zeruz Eskuara aphainduko dugu
Nausi chutitu eta egin dezan oihu :
Dohala ba erdara
Herritik kanpora !
Oi Axular !...


V

Kantuz jinen gitzaitzu Eskualdun Anaiak :
Ikasle, laborari eta aphezgaiak,
Eskual-gogoa sutan
Altchatuz airetan.
Oi Axular !...

VI

Denak soinu, orduan berpiztuko zare,
Iduzkia soineko, Larruna aldare,
Eskual-Lurra bethiko
Jaun Gõikoratzeko.
Oi Axular !...

AXULAR



NUNGOA ZEN ?

Egungo egunean ba omen da oraino Urdazuriko herrian etche bat « Axular » derizana, berriskoa haatik, bainan suak suntsitu etche zahar baten tokî-tokîan egina. Izenaren gatik, nihorik ez dezake jinka han sortu zela eskual idazlari guzietan famatuena. Ez da halere dudarik, den gutieneko dudarik, Urdazuritarra zela. Urdazuritarra, sortzez bederen. Aitak, Pedro Daguerre de Axular zuen izena : Maria de Azpilcueta, amak. Izen hortako ama zuen Frantses-Xabier sailduak ere. Jendekian othe ziren bada saildua eta idazlaria ? Dakienak daki, guk ez dakigu.

NOIZ SORTU ZEN ?

Michterio, hori ere gureztat. Vinson deithu liburu eta paper ikhertzale handiak dionaz « mila eta sei ehungarren urthean berrogoita lau urthe zituen Axularrek ». Hori bera erraiten dauku Haristoy Ziburuko erretor jakintsunak. Chaho Chuberotarren arabera Axularrek hogoita hamalau urthe zituen Laphurdirat ethorri zelarik, bainan hainitz gazteago zaukan hemezortzigarren mendean Joannes d'Etcheberrik.

Gutarik hurbilago, guziek ezagutzen eta maite duten Julio de Urkijo ere ibili da chokho miatzen, Axularrez zerbeit jakin nahiz. Bada, etzaio iduritzen Vinson chuchen mintzatu dela, « 1556 garren urthean sortu balitz Axular, « Guero » argitaratu duenean lauetan hogoita zazpi urthe bazituzkeela ! » Eta zertako ez ? Petain marechalak ez othe du nor-nahik noiz-nahi bezen izpiritu argi eta chorrotcha adin hortan ? Julio de Urkijoren ustea hau da, « 1573 garren urthean sortu zela Axular ».

APHEZGORAKO URRATSETAN.

Horiek hola, aphezgorako lehen urratsa, urrats urruna haatik, aphezgeiari buruan egiten zaion khoroa baita, khoroa Iruñan egin zioten Axularri 1584 garren urthean, Abendoaren 21 ean, Gurutze Sailduaren, kapera. Ortzirale bat zen eta Pedro de

Fuente aphezpiquia khoroeigile. Eta orai, othoi ohart huni : gorachago erranetan Julio de Urkijo mintzo bada chuchen, eta ez Vinson, hameka urthe zituen doidoia Axularrek, aphezgorako lehen urratsa egitean ! Egia erran, hameka holako ikusten dugu mende zaharretan...

Handik lau urtheren buruan, 1587 garrenean, otsailaren 21 ean egin zituen sudiakretu aintzinean egiten diren bertze urratsak, bainan etzuen zortzi urtheren buruan baizik sudiakretu behar, 1595 garrenean, buruilaren 23 an.

Ondoko urthean, maiatzaren 13 an Pedro de Axularrek ardietsi zuen Iruñako aphezpiquaren ganik baimena nahi zuen lekhuuan diakretzeko, eta jo zuen... Kataloniarat. Leridako hirian diakretu zen, ekhainaren zortzian. Zertako han ?

Iduri du Axularrek etzuela hanbat maite lekhuaren gainean egoitea, eta aldaira maiteago zuela, eta laster Frantziako bidea hartu zuen. Bainan Orhyko choria Orhyn laket, eta Eskual-Herrian kokatu zen, Baionako diosesan. Mementoan etzen aphezpiquirik Baionan, eta Bertrand de Hiriart zen diosesaren buru. Hunek paper guziak eman ziozkan Baionaren kondu Tarben aphezteko. Eta hala egin zen, 1596 garrenean burularen hogoita batean, Salvat d'Iharce hango aphezpiquaren eskuetarik. Artean erran dezagun, Bastidarra zen Tarbeko aphezpiquia : Bastidarra, ere eta hunen iloba, ondotik Tarberat aphezpiqui joan zen bertze d'Iharce bat.

Huna Axular aphez. Donibane-Lohitzunen ikusten dugu lehen lauzpabortz urthetan. Deus handirik ez dakigu Donibanen ibili zituen lanez. Badakigu haatik arras maite zuela predikatzea, eta laster predikari handi baten fama bildu zuela.

Hainbertzenarekin, eta menturaz predikaria bezen aphez jakint-suna zela Axular aditurik, Jean Douamet, Saran erretor zen aphez chaharrak, eritu eta ezindurik, kargua utzi zuen eta Aita Sainduari Pedro de Axular galdetu ordaintzat. Aita Sainduak galde hori onharturik, Baionako aphezpiqui Bertrand d'Echais Baigorriarrak Axular izendatu zuen Saraiko erretorgorat : 1600 garren urthea zen, uztailaren 10 a. Etzen segurki orduan luzez egon Donibanen Axular : bortz egunen buruko Saran zen. Etzitaken herri egokiagorik halako aphez eta eskualzale batentzat...

Bainan saltsa eder bat hasterat zoan Saran.

SARAKO HERRIAN.

Jean de Harostegui donibandar aphez batek ere begiztatua zuen Sarako erretorgoa, eta horra nun, hautsak eta herrautsak higiturik Frantzian eta Italian, Erromatik ardiesten duen erretorgo hori, Axular Saran lakhetzen hasi orduko. 1601 ean, martchoaren 10 ean Harostegui badoa beraz Sararat... sariant bat lagun. Erretorgoaren hartzerat zoan bere ustez. Bi bikario baziren Saran : Haristeguy jaunak beltzuri egin zion, begitarte hobea Etchegaray jaunak, eta Harosteguy abiatu zen elizari buruz. Bainan athea hetsia zen eta etzen sarthu ahal izan. Zer egin ? Athe handiko morroila erhi puntaz hunkitu zuen lekuko batzuen aintzinean eta hola erretorgoaz jabetu. Igandea zen biharamunean. Harostegui tranqiltasun osoan mezaiko behar zituen jauntzien hartzerat joan zelarik, Axular bi jauziz gainerat joan zitzaion, eta, burua apha, herri guziaren aintzinean lekhuak hustu behar izan zituen Harostegui Donibandarrak.

Etzuen haatik berehala amor eman eta auzitan sartu zen Axularrekin. Hau, orduko erran bat sinhetsi behar balinbadugu, joan zen Pariserat.... oinez, eta han Henri IV erregeari berari mintzatu. Erregeak paper bat eman zion Napartarek Frantzian bazituztela Frantsesen dretcho guziak, Frantziako erregea Naparrako errege zenaz geroz dembora berean.

Daranatz jaun kalonjeak delako papera nunbeit atchegan du, duela zenbeit urthe, eta hemen eskerrak zor zaizkio, Eskual-Herriaren izenean, balio hortako paper bat sekulakotz galtzetik begiraturik. Ochala Herrian baginu Daranatz jaun kalonje ona bezalako chokho miatzaile hainitz !

Paper hori Bordeleko lege-egileen Biltzarrari buruz igorri zuen erregeak. Biltzarra, behin esku eman bazion ere Harostegui. etzen orduan thematu. Ba haatik Harostegui bera, eta bigarren auzi bat hasi zuen Axularren kontra, baizik eta Axularrek lehen auzia irabazi bazuen Bertrand d'Echaus aphezpikuari esker irabazi zuela, hunek Bordeleko Biltzarrean zituen ahaide batzu mintzaturik eta bere chedetarat bildurik. Eta, futcho, Harostegui irabazi zuen bigarren auzia ! Halere Axular etzen gutiago, izenez ez bada, izanez Sarako erretor gelditu. Nola ? Harostegui hilik ? Bere baitarik Harostegui kargua utzirik ? Bi erretorek antola-

mendu zerbeit eginik ? Ez dakigu. Dakiguna da 1609 garren urthetik 1624 garrena arte Saraño elizaño errechistroetan ez dela Axularren izena baizik ikusten. 1641 garrenean Saraño erretoren haatik oraino, ezen urthe hortan otsailaren 24 ean kontratu bat sinatu zuen herriarekin eliza-dorrearen egiteko eta eliza guziarren erreberritzeko.

ESKUALZALEA.

Nor-nahik segur guk baino hobeki erran lezake zer eskualzalea zen Axular, eta ez da dudarik ederki goretsiko dutela agerkari huntan berean Mgr St-Pierre eta Piarres Lafitte batzuek. Nola mintza Axularrez haren eskualzaletasuna aipatu gabe ?

Axularren eskualzale fama orotan hedatua zen : orok jaunena jaunarentzat zaukaten. Estebe Materrek bere eskuarazko katichima argitaratu zuelarik 1617 garren urthean, d'Etcheberrük bere Manual debozionezkoa 1626 garrenean eta bere Elizara erabiltzeko liburua 1636 garrenean, liburu horien ontzat hartzeko aintzin hitzak nori galdetu ziozkaten ? Saraño erretorari.

Baionako aphezpikuak berak gain-gainetik prezatzen zuen Axularren eskual trebetasuna eta jakitate handia.

Axularri orduan iduritu othe zitzaion hura bezalako eskualzale batentzat etzela aski bertze langilek eginak ongi zirela erraitea ? Dena dela, « Guero » agertu zen.

Eskual-Herriko girichtinoak berak aski nahasiak ziren memento hortan. Protestanten gerlek duda frango sar-arazia zuten arimetan : eliza-gizonak berak ontasunen ondotik zabiltsan behar baino gehiago : hainitz eta hainitz giristino gaizki bizi ziren.

Bai, « Guero » oren onean agertu zen. Baditake Axularrek aspaldi egin zuen, bainan ager-arazterat ezin menturatuz egon zen ordu arte, gehientsuen heinaz goragoakoak zirelaokan liburu hortako erakaspenak.

Eta gero nori daki ez othe zuen ilobak, osabaren ichilik eta baimena gabe argitaratu liburua ? Ditakena da hori ere. Nolanahi, « Guero » ongi ikusi zuen Eskual-Herri guziak.

AXULARREN HERIOTKENA.

1644 garren urthean hil zen Axular eta apherilaren 8 an ehortzi zuten hainbertze zor zion Saraño eliza ederrean. Hobi berean

*hortzi beharra zen handik zenbeit urtheren buruan, 1653 garre-
nean, buruilaren 2 an, iloba. Huna hobiaren gainean oraino orai
irakur ditazken hitzak :*


MONVMENT
DE MESSIEVRS
DAXVLAR ONCLE ET
NEPVEV
DIGNES CVRÉS
DE CE LIEV
DESCEDERENT
EN L'AN
1644 ET 1653

*L.-L. Bonaparte printzeak marmolazko orhoitzapen bat egina-
razi nahi izan zuen idazle handiaren ohoretan, demboraren buruan.
Hartan hau irakur ditake :*

PEDRO AXVLAR
EVSKALDVN IZCRIBATZALLETATIK
IZTVN
EDERRENARI NI
LVIS LVZIANO BONAPARTE
EVSKALZALEAK AV IPINI NION
EZ DAGO ATSEDENIK
TA ODEI GABE EGVNIK
ZERVETAN BAIZIK
1865

*Zeruetako odei gabeko egunetan Axular ohar dadiela lanho
beltzek gure Eskual-Herri maitea gero eta gehiago hartzen ari
dutela, eta hemengo eskualzale bakharra bere othoitzez lagunt
detzala Eskual-Herriaren eta Eskuararen salbatzen...*

ZERBITZARI.



VARIA SUR

AXULAR

et SON LIVRE

I

Le Gvero et ses éditions

Pedro Daguerre (Azpilcueta par sa mère) signait Axular du nom de sa maison natale. Il a laissé à la postérité, outre des approbations à la *Doctrine de Materre*, ainsi qu'au *Manuel de Dévotion* et au *Livre pour porter à l'église* de Jean Etcheberri, un ouvrage de 623 + VIII pages non chiffrées intitulé *Gvero*, et un long sous-titre que nous nous abstenons de reproduire. De ce livre, justement célèbre dans la littérature basque, on ne signale aujourd'hui qu'une dizaine d'exemplaires plus ou moins complets et en plus ou moins bon état. Parmi eux, trois se trouvent dans des dépôts publics, un à Chicago, un à Paris (Bibliothèque Mazarine), et un à la Bibliothèque Municipale de Pau. Le plus beau de tous les *Gveros* actuels est celui que nous vîmes en août 1913, chez le Jonkheer van Eys, à San Remo. Relié en maroquin rouge par Trautz-Bauzonnet, doré sur tranches, presque pas rogné, avec témoins, il fut payé deux mille francs par le regretté euskarologue au libraire Jean Maisonneuve, lequel l'avait eu pour quatre cent vingt francs seulement, en mai 1873, à la vente Burgaud des Marêts. Il convient d'insister aussi sur l'exemplaire de Chicago. Il fut acquis en 1859 à la vente Libri pour la somme de treize guinées, soit environ trois cent quarante francs-or, par le prince Louis-Lucien Bonaparte, qui eut comme concurrent en ces enchères le British Museum. Enfin, dans des

notes inédites, Serpeille, l'ami de Chaho, parle d'un *Guero* corrigé par Oihénart. Serait-ce celui de Pressac ? Il est à souhaiter qu'on le retrouve.

Le *Guero* a été réédité à une date incertaine (voir à ce sujet la Bibliographie de J. Vinson) sous le titre *Gueroco guero*, et à Bordeaux, comme l'édition de 1643. Le sous-titre en fut changé aussi : il n'y est point question, en effet, de la seconde partie du livre, promise par Axular. D'où l'on peut conclure que ce dernier, décédé en 1644, ne l'avait pas composée (ou achevée). Mais pourquoi ce changement de titre, *Gueroco guero* au lieu de *Guero* ? Saroïhandy croyait avec raison que le *Gueroco guero* était tout simplement le *Guero* du *guero*, en termes plus clairs, la deuxième édition du *Guero*. Nous nous rallions à cette hypothèse. Quoi qu'il en soit, cette seconde édition, beaucoup moins rare que la première, mais précieuse nonobstant, fourmille d'errata, encore que par endroits elle soit plus correcte que l'originale. D'où l'on peut inférer que pour une réédition définitive du livre de Daguerre, il faudrait tenir compte des deux. Nous ne mentionnerons pas, évidemment, les différences de ces deux textes. Il nous suffira d'attirer l'attention des amateurs de vieux livres basques sur une particularité typographique : le *Guero* est in-8° et le *Gueroco* in-12°.

Pourquoi fallut-il qu'Inchauspe — qui a droit par ailleurs à l'admiration et à la reconnaissance des bascophiles et des bascologues — crût devoir, en 1864, rééditer Axular ? Il le fit pourtant, sans avoir jamais vu le *Guero* qu'il n'osa pas emprunter au prince Louis-L. Bonaparte. Il bouleversa l'ordre des chapitres du *Gueroco guero* et en supprima même des passages. Cette édition ne fut mise sous presse qu'après l'encaissement de quelques souscriptions et n'a été épuisée qu'en une quarantaine d'années. Nous n'en parlons que pour mémoire. En revanche, nous recommandons vivement la lecture de ce qui a été reproduit du *Guero*, c'est-à-dire la majeure partie, par la photogravure, dans la *Revue Internationale des Etudes Basques*.

Cet ouvrage n'a été, du moins dans sa totalité, traduit dans aucune langue. La revue précitée en a publié une version biscayenne des premiers chapitres due à Pedro Antonio Añibarro. Quelques fragments d'une traduction guipuscoane ont égale-

ment vu le jour, mais le texte en a été pris dans l'édition Inchauspe.

Jusqu'à la fin du XIX^e siècle, on croyait que le chef-d'œuvre d'Axular avait été pensé directement en basque. On ne s'était pas demandé comment un ecclésiastique rural, travaillant loin de toute grande bibliothèque, pouvait citer tour-à-tour et abondamment Aristote, Sénèque, Plutarque, saint Augustin, saint Jean-Chrysostome, saint Ambroise, saint Thomas, etc., etc....

Cependant Schuchardt, qui avait beaucoup étudié Axular, ainsi qu'en témoignent les notes qu'il a laissées sur notre auteur et les citations qu'il en donne dans ses travaux, faisait part en 1899 à Farinelli de son dessein de publier une étude sur l'œuvre du curé de Sare. Dans cette lettre, le professeur de Graz suppose une source espagnole primitive qui aurait pu avoir pour titre *Después, después*. Mais en 1911 et 1912, M. Julio de Urquijo, dans une brochure intitulée *Une fuente del Guero* et dans trois articles de la *Revue Internationale des Etudes Basques* montra péremptoirement qu'Axular imita Luis de Granada. Par ailleurs, l'abbé R.-M. de Azkue étudiant les manuscrits de Guillaume de Humboldt à la Bibliothèque d'Etat de Berlin, y découvrit l'indication que le texte axularien concernant l'enfer et ses peines est le même que celui de Bourdaloue sur le même sujet. Mais on ne saurait avancer qu'Axular copie Bourdaloue, car le *Guero* est de 1643, et Bourdaloue ne commença de prêcher qu'en 1659. Resterait l'hypothèse que les deux écrivains auraient puisé à une source commune. Nous laissons aux théologiens le soins d'éluider cette question.

II

Le dialecte d'Axular

Notre homme était né à Urdax (Navarre transpyrénéenne) dans la maison « Axular », où, écrivait Antoine d'Abbadie à Bonaparte en 1861 « on nourrit des agneaux sevrés (anchu-larre) [!!!] de temps immémorial ». Cependant, J. de Urquijo (*R. I. E. B.*, 1911, p. 544), affirme que la casa « Axular » fut détruite par un incendie et remplacée par une autre du même

nom... En tout état de cause, le basque d'Urdax ne diffère que d'une façon insignifiante de celui que l'on parle à Sare, où l'écrivain habita de trente-cinq à quarante ans, prêchant dimanches et fêtes le matin à Saint-Jean-de-Luz, si l'on en croit Lahetjusan. Toujours est-il que son dialecte était le labourdin. Il suffit, pour s'en assurer, de le comparer d'une part à celui dans lequel écrivent les auteurs labourdins de la même époque, et, d'autre part, aux textes navarrais du commencement du XVII^e siècle et surtout aux plus importants de tous, nous voulons parler des deux petits livres de Beriain (1621 et 1626). Le basque d'Axular ressemble beaucoup plus à celui de Materre, Haramboure et J. Etcheberri par exemple, qu'à celui du curé d'Uterga. Bonaparte, il est vrai, écrivait en 1864 à d'Abbadie que le labourdin d'Axular « fourmille de mots et d'expressions guispuscoanes » et, en 1865, qu'il est « un peu mélangé de guipuscoan », mais comme le guipuscoan du XVII^e siècle n'est guère connu que par les peu nombreux proverbes d'Isasti, on ne saurait s'étendre sur le problème des guipuscoanimes de Daguerre. Pour ce qui est du style, nous nous abstenons de le juger : un autre collaborateur de ce numéro s'en est chargé.

III

Axular et le prince Louis-Lucien Bonaparte

Le fondateur de la dialectologie euskarienne travaillait avant tout sur le vivant. En fait d'auteurs, il n'écrivit longuement que sur le basque de Liçarrague. Dans sa correspondance, cependant, il parle assez souvent d'Axular dont il possédait, nous l'avons vu, le *Guero* (ainsi que le *Guero*co, plus deux exemplaires inchauspéens). En 1856, il visita Sare et y promit de faire apposer une plaque sur la tombe de l'ancien curé. Il chargea son fidèle d'Abbadie de mettre en train cette affaire, en exigeant que la dépense n'excédât pas deux cent francs. Il tenait, au surplus, à ce que l'inscription fût rédigée en guipuscoan, dialecte qu'il préférait et dont il devait dire quelques années plus tard que quand on disait « basque » sans spécifier c'est du guipus-

coan qu'il s'agissait. Il proposa donc, dans une épître de 1859 à d'Abbadie, de rédiger l'inscription ainsi :

PEDRO DE AXULAR, LARRAMENDIC
EUSCALDUNEN CICEROA DEITUAREN OROITZARI,
LUIS-LUCIANO BONAPARTE PRINCIPEAC
OL MARMOLEZCO AU CONSAGRATZEN DIO.

Et il chargea Inchauspe d'ajouter à cette dédicace une sentence prise dans le *Guero*. Mais celui-ci ne semble pas pressé d'obtempérer. Plus tard (3 février 1862), le prince insiste : «... Il faudrait une belle maxime qui fût en même temps religieuse et philosophique. » Le 20 mars 1862, d'Abbadie répond que M. Inchauspe n'a pas encore lu l'Axular qu'il lui a prêté pour y choisir une maxime. En novembre 1864, Bonaparte revient à la charge. Il désire ajouter à l'inscription les vers suivants, de lui :

*Ez dago atsedenik
Ta odei gabe egunik
Zeruetan baizik.*

Le 6 mars 1865, d'Abbadie se met à la disposition de Son Altesse pour « le monument à Axular ». A quoi le prince répond le 24 mars par une longue lettre. Il répète qu'il ne veut pas dépasser 200 francs, demande « que le placement de cette plaque ait lieu dans le courant de cette année, qu'il n'accepte pas de coopération, ni de collaboration dans la rédaction de l'inscription, pas plus que dans les frais, dans le cas où l'on pourrait trouver que les 200 francs ne seraient pas suffisants pour faire une chose digne d'Axular », et en fin de compte, il propose l'inscription que voici :

PEDRO AXULAR
EUSCALDUN ISKRIBATZALLETATIK
IZTUN EDERRENARI
NI, LUIS LURZIANO BONAPARTE EUSKARAZALEAK
OROIPENGARRI AU IPINI NION

Et il commente sa rédaction de la façon suivante : « C'est à l'*iskribatzalle iztun ederrenari* et non pas au Recteur de Sare que je consacre la plaque en marbre. » Il ajoute qu'il ne considère point Axular comme le premier des écrivains basques, mais

comme « le plus élégant ». (C'est Liçarrague qui était le premier selon lui.) Puis il disserte sur les particularités grammaticales de son texte et continue par cette considération intéressante : « *Euskarazale* » donne mieux l'idée de ce que je suis : un amateur du basque. » Ces passages et d'autres que j'omets pour abrégér constituaient en partie une critique de l'inscription quelque peu courtisanesque proposée par Duvoisin et conçue dans les termes labourdins suivants (avec apports guipuscoans) :

PEDRO AXULAR
SARACO ERRETOR CENARI
EUSCALDUN ESQUIRIBAÇAILEEN ARTEAN
LEHENARI ETA BURUÇAGUIARI
ORHOITÇARRE HAUR IBENI DU
L.-LUCIEN BONAPARTE PRINCEAC
EUSCARAREN ETA EUSCALDUNEN
ONERISTAILEAC

Duvoisin, prolixé, continue : « *Bideazcoa baitcen hemen eta iragaitez, gu beçala, dembora çueno ongui eguinic, joan cen seculaco etcherat, Jorrailaren 8ⁿ - 1644 garren urthean.* » Et il accolle la sentence à laquelle, décidément, Inchauspe ne paraissait pas tenir : « *Çuhaitça maccurtua dagoen aldera erortcen ohi da, ebaquitcen denean. — Bicitceari darraica heriotcea.* (Axularen hitzac XVII^e cap.). » On est en droit de se demander s'il eût été possible de caser tout cela pour 200 francs.


Dans un autre passage de sa missive, Bonaparte écrivit que s'il admire Axular comme écrivain élégant ou éloquent, il est « loin d'avoir la même admiration pour lui comme écrivain religieux philosophique ». Il est regrettable que cette assertion n'ait pas été plus explicite.

La plaque fut apposée le 28 décembre 1865 dans l'église de Sare. D'Abbadie, ménager des finances du prince, déclara qu'elle « n'a coûté que 140 francs ». L'inscription définitive, à quelques différences orthographiques près, fut celle que proposa en dernier lieu Bonaparte (qui supprima cependant *oroipengarri*). Les vers copiés plus haut y furent ajoutés (avec substitution de *zeruetan* à *zerubetan*) et aucune sentence d'Axular n'y figure.



GERO-AREN

BILDUMA



Axular-ek egin duen liburua biziki famatua da; baina nehor gutik daki zertaz mintzo den.

Laburzki erraren dugu beraz nolako irakaspenak ekartzen dituen, eta gu baino jakintsunago bati utziko diogu, haren mintzaire eder bezain gozoaz zerbaiten aipatzeko lana.

Sailari lotu gabe, Axular-ek bi aintzin-solas emaiten ditu :

— lehenik « *gomendiozko karta* » bat Bertrand d'Echaut, Turs-ko Jaun artchapezpiku baigorriar zenari : adichkide eta ongi-egile handiaren orhoitzapenak erreberritzen ditu, eta bere liburua haren gerizapean igortzen du jendeen arterat, orotan onetsia eta onhartua izan dadin. Bide-nabar Echaustarren balentriak goستن ditu, bereziki Higenauten kontrakoak, eta azkenean (« hemengo aldia egin hurran baitu », berak dion bezala) ez du lehia bat baizik : bere adichkide zenaren zorthe onaren ardiestea !

— bigarren aintzin-solasa, *Irakurtzaileari* : nola hartu duen Gero-aren moldatzeko chedea; bera baino egile hoberik aurkhi zitakeelarik, nehor ez hasi nahi-eta, bera ahal bezala hasi dela; lanaren hutsak ez direla eskuaren gain eman behar, eskuarak ez duelakotz hortan hobenik, mintzairez-mintzaire edozeinekin parekatzeko on

bailiteke. Artetik, chehetasun zombait emaiten ditu izkiriatzeko moldeaz, bai eta jakin-arazten, ez duela bi zathietarik lehena baizik ager-araziko, zer begitarte eginen dioten ikus-arteana.

Obrak alabainan *bi parte* ditu Axular-en gogoan : « lehen bizikoan emaiten da aditzera zenbat kalte egiten duen luzamendutan ibiltzeak, egitekoen geroko uzteak » ; « bigarrenean kidatzen da eta aitzinatzen luzamenduak utzirik berehala bere eginbideari lothu nahi zaikana » .

Eskuetan dugun liburua askotan irakurtua dugu, eta Inchauspe zenarekin aitor dugu kapituluak guti-aski nahasiak direla. Ez bide ditu Axular-ek berak ordenu hortan ager-arazi. Inchauspe-k bere gisako segida batean ezarri ditu, baina ez zaiku iduri arrimu berri horrek ere gauzak arrunt argitzen eta hachean emaiten dituela. Huna nola parteka ginitzazkeen *Gero*-ko 60 kapituluak, elgarri jarraik-arazteko.

Liburuaren geia hanche da : *geroko ez utz bekatutik atheratzea*. Erakusten du lehenik zertako ez den luzamendutan ibili behar, eta gero zoin diren bekatu zailenak eta errotik auzera-gaichtoenak.

A. ZERTAKO EZ DEN LAZAMENDUTAN IBILI BEHAR

I. — Geroko uzten den konbersionea mentura tcharrean da

1º Geroa ez da gure eskuko (IV - V).

- a) bizitzeko segurantzarik ez dugu ;
- b) menturari ez ditake fida ;

2º Geroago eta nekezago da oneratzea :

- a) luzatzeak ez du onik : gero dionak bego (VI) ;
- b) luzatzeak usantza gaichtoa emaiten du (VII) ;
- c) bekatorea gogortzen du (VIII) ;
- d) non ez duen behetikotz gaizkiari josten (IX).

— Bekatorea galdatuko du : Jainkoaren miseriakordian ez othe ditake fida ? Ihardesten dio Axular-ek :

- a) bai fidatu behar dugu (X) ;
- b) baina Jainkoa zuzena dela orhoituz (XI) ;

II. — Gure bekatuzko estatuak zeru-lurrak trichatzen ditu :

1º Zeruan :

- a) Jainkoa laidostatua da (LIII) ;
- b) Aingeruak penatuak dira (LIV) ;

2° Lurrean :

- a) gizonek sofritu behar dute (LV) ;
- b) bai eta bertze izaite guziek ere (LV).

III. — Bekatuan egoiteak dohakabetzen gaitu :

- 1° Bihotza dolu-minez dago (XLV) ;
- 2° Bekatuan higatu denbora galdua da (XII) ;
 - a) gaztetasunak bere lorea galtzen du (XIII) ;
 - b) zahartasunak bere ohorea (XIV) ;
 - c) heriotze gaichto baten menturan jartzen gira (XV) ;
 - d) obra onen merechimendua suntsitua da (XVI) ;— Bide nabar Axular-ek bi hitz erraiten dauzku justiziazko eta miserikordiazko obrez (XVII, XVIII).
- 3° Eternitatea galtzen du bekatoareak :
 - a) Ifernuko lehen pena : Jainkoaren ganik berechtea (LVI) ;
 - b) bigarren pena : nango sofrikarioak (LVII) ;
 - c) Ifernua ez du bururatzetik (LVIII) ;— Artetik Axular-ek erakusten dauku zuzen dela Ifernua bethikoa izan dadin (LIX, LX) ;
- 4° Bekatoareak ez du ezagutzen bertutearen gozoa :
 - a) Konzientzia onaren bakea (XLVI) ;
 - b) Ifernurako bidea zerurakoa baino nekeago da (XLVIII) ;
 - c) Zerurakoak bere nekeak baditu, bainan oro har biziki errechago da (XLIX, L).

Chedea : Kofesatu behar da eta ongian iraun :

- 1° Penitentziako sakramendua baitezpadako ontasuna da (LI) ;
 - 2° Usu Kofesatu behar da (LII) ;
- Iraupena (XLVII).

B. BEKATURIK ZAILENAK

I. — Alferkeria.

- 1° Lanari aihar zaion alferkeria (I) ;
- 2° Arimaren ontzeari aihar zaiona (II) ;
- 3° Alferraren bizitze hutsa (III).

II. — Zin egiteko usaia (XIX).

- 1° Berenaz zin-egitea gauza ona da, egiaz eta zuzenez egiten denean ;
- 2° Bertzela Jainkoa laidostatzen du ;
- 3° Behar gabe zin-egiteko usaia ez da aise galtzen eta bekatoareak hondatzen du ;
- 4° Usaia horren sendatzeko : kasu mihiari, hizkuntza-orde batzu erabil, orhoit Ifernua.

III. — Hasarrea eta herra.

- 1° Ekhartzen dituzten kalteak (XX) ;
- 2° Erremedioak :
 - a) Kasu zaineri (XXI) ;

- b) urrun samur-arazten gaituztenen ganik, — ichilik egon, — emeki eta errepauski mintza (XXII) ;
- c) deusik ez delibera, ez egin, herrak dirauno (XXIII) ;
- d) egiten zaikun gaizkia Jainkoaren gatzigtzat onhar (XXIV) ;
- e) orhoit hasarrea erhokeria bat dela (XXV) ;
- f) ez kasu egin errankizunari (XXVI) ;
- g) gogoan atchik Kristo-ren gorphutzeko menbroek ez dutela elgarren herrarik izan behar, — ar lanean edo bertze zer-baitetan koleraren ohiltzeko, — adiehkide zunar bati galdegin konseilu, — orhoit bakea zer ontasun gozoa den (XXVII).

3º) Barkatu behar zaiote etsaieri :

- a) Jainkoaren manamendua da (XXVIII) ;
- b) Bego Jainkoari mendekioa (XXIX) ;
- c) Barka bertzeri, guhauri Jainkoak barka diezagun (XXX) ;

IV. — Lizunkeria.

1º) Lizunkeriaren ondorioak :

- a) zentzua itsutzen eta erhotzen du (XXXI) ;
- b) ahaidegoaz ere ez acholarik (XXXII) ;
- c) zin faltsu hainitz egin-arazten du (XXXII) ;
- d) sorhaitzen eta basatzen du gizona (XXXIII) ;
- e) bihotza nahasten du eta kecharazten (XXXIV) ;

2º) Lizunkerlaren garrait-bideak :

- a) othoitza (XXXV) ;
- b) gogoeta tzarren kentzea (XXXVI) ;
- c) ongirako chede fermua (XXXVII) ;
- d) deusik egin gabe ez egon (XXXVIII) ;
- e) gogari eman zoin laburra den atsegin lizuna (XXXIX) eta zer ondorioak dituen (XL) ;
- f) kasu bortz sentsueri, bereziki begieri (XLI) ;
- g) kasu solaseri (XLII) ;
- h) ez sobera jan ,ez edan (XLIII) ;
- i) ihes egin dantzari, usain oneri, fereka, eta bertze eror-bide guzieri (XLIV).

Horra ahal bezain garbiki *Guero*-aren bilduma. Badu mami, badu irakaspn ; eta segur naiz askok dolu dutela bigarren partea ez eskuraturik. Lehenaren araberkoa balinbazen, zer ez dugu galdu ? Bainan cho ! Beharrirat erraren dautzugu, gure iduriko, bigarren zathia, parte segurik, ez dugula batere galdua ; itchura askoren arabera, Axular-ek ez bide du berak (chaharregiz ala nik dakit-a ?) bere liburua argitarat eman : ilobak ala bertze norbaitek hartu dituzke eskuz eginikako gai guziak, lehen


partekoak eta bigarrenekoak, elgarretarik berechi gabe, eta nolazpait bildurik ager-arazi.

Bekatu zailenak eman dauzku eskutan dugun liburu ederrean ; bainan ez bide zen lau bekatu hoitan gelditze-koa : ohointzaz bederen bazukeen kapitulu-alde on baten gaia.

Gure aburu osoa emaitekotz, erran ginezake Axular-ek ez zuela bere bigarren partea hasi baizik : sail handia-ri lotua zen, San Frantses Sales-ekoaren *Filotea* bezalako zerbaiti. Damurik ez baitzuen bururatu ! Menturaz harek emanen zaukun, oraino hain eskas dugun *Eskualdun fededunaren esku-liburua* (le « manuel de la spiritualité basque »).

Den bezala ere, liburu ederra da, joria, aberatsa, jakitate handikoa, eta nahi ginuke lehen-bai-lehen norbait-ek berriz ager-araz baleza girichtinoen eta eskualzaleen onetan (1).

P. LAFITTE.



(1) Hitztegi batean (*Biographie générale*, F. Didot MDCCLXI, tome III) hauche erraiten dute Axular handiaren *Guero*-az : « Dans ce singulier travail, Axular met en regard la mythologie catholique et la mythologie païenne : il invoque tour à tour saint Augustin et Platon, Ovide et la Bible, Jésus-Christ et Sésostris. » Gure irakurtzailek hitztegia dute « hitchi » kausituko, eta ez Axular-en liburua. Gainerateko berriak horriek bezain egiak balinbadira, *Biographie* hori surat aurditzen ahal dute.



AXULAR-EN HITZ MOLDEAZ

Duela lau mende, Baionako apezpikuaren manuz, bi apez jakintsunek irakurtu zuten Axular Sarako erretor aipatuaren lan bat, agertu aintzinean jadanik aho mihietan zabilana. Baimenaren aintzin urhatsa zen ikertze hori. Bertze goresmenen artean, hitzmoldeaz ere batak ala bertzeak eman zuten beren gogoaren berri : Dissanetche-k zioen oro ederki apainduak kausitu zituela : *omnia ornata* ; Durthubie-k aldiz miresten zuen Axularen aho aberatsa : *uberem facundiam*.

Hortan da Axularen miresgarria. Ordu artio iduri baitzuen eskuarak ahalge zela, herabe zela eta arrotz jende arterat ausartatzeko, geroztik burua gora dabila apaindura horri esker ; munduak ordu arte uste baitzuen eskuara labur zela, eskas eta hertsi zela, geroztik ikusten du Axularen hitzmolde nasaiak beren neurriko jauntzi bat egin diotela asmu goreneri.

Bertze mintzaietan, hein hortarat hel aintzinean, luzaz trebatu dira langileak ; frantsesa ere, bere lehen abiadura hartan, murriz, hotz eta buluzi zerabilaten ; bainan gero, hainbertze gizon argituen eskuetan, legundu zen, berotu zen, apaindu zen, gogo beharrien janhari mamitsu bezen gozo bilhakatu zen.

Bainan eskuararen langile guti agertu da Axular baino lehen. Hortakotz egon zen bera luzaz uzkur eta gogo beldurtua, bideak ez othe ziren aski segur eta garbi, bitartean ez othe zen zonbeit trabu eta behaztopa harri. Dena den, oro garhaitu zituen ; lana bururatu zuen. Bertzeri hain eder iduritu zitzaieten obra, berak bazakiken nehork baino hobeki zer gozarik emana zuen chutik,

ez bakarrik geiaren zabaltzeko bere hedatura ginharritsuan, bainan ere achalaren leguntzeko, edo gaineko lorearen argitzeko.

**

Ez duzu zeren bilha, bizkitartean, liburu hortan, hazken piruraino legundua den hizkuntza bat. Axular-ek ez du eskuara trenkatzen, eskuarago beharrez; ez ditu bere zetabearen zolan uzten hitz larri, latz, arunt, arrotz kutsua dutenak oro; ez du eskuara mehatzen eta sakaitzen, ez eta berritzen garbitzeko estakuruan: holakoek othe dakite berek beren asmuen berri? Bertzek ez segurik.

Axular, alabainan, ez da mintzo jakintsunentzat, ez eta ere deus ez dakitenentzat: bitarteko hitz molde batean jarriko da. Gure larre mendietako mintzaia entzuten dugu, bainan hein bat jaundua, goratua, den gutieneko furfuriarik gabe: geia halakoa baita, jauntzia bere ozkaraino hel arazten du.

Hitzak berak, askotan, erdarā usain bat baduke; ez du hortaz acholarik: dohala edo zoin, asmuaren betheko den ber; dohazila lerroka, metaka, burrustan, zabal detzatela egia baten plegu gordeak oro, ikusgarri baten chehetasunak argitan ezar, deus itzalean utzi gabe: ase dadila gogoa eta begia. Deramala solasak gizona berekin, nahi ala ez, bere hatsean, bethi aintzina, karraskan.

Halako hitz erabiltzalerik ez dugu; haur bat ikusi dukezu hechurrekin jostatzen, arin eta zalhu bere erhien artean itzulikatzen dituela; hala Axular eskuarazko hitzekin jostatzen da, heietaz egiten du nahi duena, eta gutaz berdin.

Behazu zer dioen okasioneaz. Zuk erranen duzu okasioneak baduela nun loth aintzinetik, eta gibeletik ez? Bainan huna Axular:

Okasionea kōpetan, belarrean, aintzinaldean iletsu da eta cherlotsu, bainan garhaitean, garzetan, gibealdean motz, soil, garbal, kārsoil eta ilegabe.

Chinaurriaz zuk erranen duzu zuhurra dela. Huna Axular:

Zoaz, nagia, chinaurria gana, eta kōsidera itzatzu haren bideak eta bideskak, joan ethorriak eta itzul ingurrak...

Ursoa edaten ikusi othe duzu?

Usoak eztu bertze hegastinek bezala edatean burua goiti altchatzen. Edan gogo duena, abreak bezala, hatsik hartu gabe, burua goratu gabe kolpe batez edaten du.

Eta urdeak, zertako bada, batere minik gabe, hunkitzeaz beraz egiten du marraska ?

Zeren, nola ezpaitu deus ere on den gauzarik, bere urdaia bai-zen, ez ilerik, ez lumarik ez larrurik, ez eta bertze gauzarik, bere izanez eta naturaz da beldur, hartzen dutenean, biziaren edekit-zeke hartzen duten.

Obra onak gerorat uzten dituzu ? Gero dionak bego dio. Bertzalde, orhoit sagarroiaren erditzeaz : « *Sagarroia, bere izaitez ere, nekez erditzen da. Bainan are bere faltaz nekezago. Zeren nola larrua baitu latz eta gaztaina karloa bezala puntaz et arrantzez bethea, eta umeak ere bera bezala latzak eta arrantzetsuak baititu ; ume hek, erdi behar duenean bere arrantzez eta karloez min egiten diote ; eta haletan minari errendaturik erditzeke meneratzen denean, barnerat sartzen ditu, eta han ahal bezenbat edukit-zen ditu. Eta nola hala dadutzan bitartean ere, handitzen eta gogortzen baitira ume hek, eta alabainan erdi behar, edo hil : han-dik azkenean, harri baten kontra permaturik, lehen eginen zen baino nekezago eta penazago erditzen da. »*

..

Begia nausi, nik uste, hitzmolde hortan. Nork egundaino gutartean jende chehearen menerat jautsarazi ditu, hain cheheki, erakaspén goren-gorenak ? Eskualdun jendeak badu bere gisako hartzea ; baditu haren adimenduak bere ozka bereziak, heietan behar baitzaio helarazi bere alha, batere lotzekotz.

Zuhurtziaren azkurri indartsua aphabetu gabe ahamentzen du, tipitu gabe chehatzen du, ahuldu gabe esnetzen du.

Emozu bada gizonari, adinean han harat joana izana-gatik, emozu, haurrari bezala, itchurapenen laguntza : orhoit bi begiren jabe dagola ; ikusten balinbadu hein berean ikasiko du.

..

Begia bezala beharria ere beretzen du. Hitzaldia badoha liburu hortan ibai eder baten pare, ur handi nasaiek bat bertzea

deramatela, harrabots gozo batekin ; ageri du ahoan ez dela bakharrik eskualdun zaporeaz gaindi egina, baina entzuleak ere baduela zeri loth beharriaren alhatzeko.

Artetan ibaia hasarretzen da eta lastertzen ; hitzaldia, ohiko hedadura utzirik eta bere hats luzea hautsirik, betbetan biltzen da, labur eta gothor : bilduago eta betheago joiten du beharria eta adimendua argitzen : *no zen to*, zer da laburragorik gizon baten ahuleziaz mintzatzeko ?

Askotan hitzari emaiten dio indar berri bat, bi edo hiruetan ezarriz lerro, uztarturik elgarri :


Orhoit zaitenzi sekula, sekula gabeko sekula hartaz.

Bainan oroz gainerik badazki chuchen hitz nausien lokarriak ; hain zail daukatelarik gehienek eskuarak duen *Verbe* miresgarria, Axular huntan ere jostatzen da, behin ere bide chuchenetik zeiaru gabe.

Erakasle lehena eta handiena, eskuara bere lehen hegalaldian iganarazi du zeruetan gora, arrano gaztearen pare, erlisio-neko asmo barrenetaraino ; eskuarari eman dio soinean, berak moldaturik herriko geiez, dena ethekoz etheko, lau mende hauiek ezin hichtu duten jauntzia.

JEAN SAINT-PIERRE.





Zer egin zen Axular-en itzala!

Ez gira gero hemen amen-omenka mintzo. Egia bat bada nehork ezin ukhatua : gure Axular handiak etzuela itzalik !

Zuk eta nik eta hunek eta harek, hots denek badugu gure itzala. Ez balin bazira segur, askiko duzu iguzkitarat emaita, eta chuchen edo aintzinean edo gibelean edo sahetsean hatzemanen duzu edo bederen ikusiko zurea. Ez diozu haatik gainez-gain jauzi egiten ahalko, zuri lotua baitago larrua hezurrari baino hobeki oraino.

Itzal-gabea zela Axular, badakit eiki zer dautazun erranen : iguzkiak ere baduela berea edo gizona larriago eta itzala handiago ! Ezagutzen ditut bai erran zahar horiek eta ez dut segurki eta halere erran zaharri jaukitzeko gogorik, bainan bainan egiak bere bidea behar (erran zaharra hau ere !), sinetsi behar nuzu gizon guziak, emaztekiak barne, gure itzalarekin sortzen balin bagira eta hiltzen, izan dela bat (gizonkia nonbeitik ere eta eskualduna) mundu huntarat gu bezala bere itzalarekin ethorri eta bertzerat itzalik gabe joan dena !... Bat hori, bakhar hori, eskualdun guziek izenez bederen ezagutzen duten idazle aipatua : Axular ! !

Bere itzala non nola galdu zuen nahi dautzut (erosi bezala sal) beharri chilorat salhatu.

Egun heietan beraz Axular, gazte eta phizkor, Salamankan zen ichtudiant, aphezteko. Aphez ! erran nahi baita Jainkoaren armadan aintzindari !

Aintzindari batek, bere eginbide handien ederki bethekotz, ezagutu behar ez choilki bere nausi lehena, ez choilki bere soldadoak, ez choilki gudu-toki eta tresnak, bainan oraino, bainan guziz bere etsaia. Ezagutu behar etsaia nor zer den, non zer ari,

zer joko eta jokotria duen ; horiek oro ezagaturik haren hobeki garhaitzeko.

Horra zer zuen gogoan alha Axular-ek, aphezgorat heltzeko kinkan, Axular-ek eta haren lagun zonbeitak. Beren liburu handietan ikasirik, aphez on bati doakon jakitate guziaren jabe zauden ! Bakarrik etsaia zuten, debrua hots ez ezagutzen eta futcho ! hura ere ezagutu nahi eta behar !

- Bai, egia ! Bainan debrua non kausi, non ikus ? Ez da gero debrua nonnahi eta nornahiri agertzen, nahiz edozoin eskualdunek erranen dautzun. lan zerbeit nekez egin duen guziez, debrua ikusi duela lan hura ezin eginez. Erraiten bai, bainan egiazko debrua ez ikusten ! Eta Axular-ek hau zuen ikusi nahi !

Nonbeit hala beharra, egun batez gure ichtudiant gazteek jakin zuten bazela Salamankatik haratchago, mendi zoko batean emasorgin zahar bat, debrua elhaire omen zuena. Ez bat ez bia, badoatzi Axular eta haren lagunak delako sorginaren ganat eta deplauki erraiten diote nahiko luketela, behar dena pagatuz, debrua ikusi, debruaren batzarre batean aurkhitu.

— Ene nausi debruarekin galdatzea errechago ardiestea baino ! zioten erran halako chichtu mehe batean sorgin zaharrak. Niri saritzat zuen urhea aski zait, emadazue oraidanik ahurrerat, bainan harek urhearentzat ez baitu eskerrik nik chazko haizearentzat baino gehiago, badut beldurra gibelerat eginen duzuela, jakitearekin zer nahiko duen agertze-sari !

— Galda zozu behin, ikusiko dugu gero !

Muthiko gazteak han utzirik, sorgina joan zitzaioten bertze barne baterat. Erran gabe doa barne hortan sartu-eta tinki-tinkia hetsi zuela athea. Ichtudiantek nahiko zuketen ba gakho chilotik bederen behatu zer ari zen han, bainan gakho chiloa ere tapatua.

Bulta baten buruan ethorri zitzaioten gibelerat, begiak sutan eta kopeta izerdi lapetan :

— Sekulan ez eta egun omere onean baita, debruak onhartzen du zuen galdea. Joanen zirezte hulako mendirat, han aurkhituko duzue harpe-zilo bat, bere sartzea iguzki-alderat duena. Sartuko zirezte bat bertzearen ondotik eta azkena barnean izanen delarik entzunen duzue ortzi karraska bat ikharagarria. Ez izi haatik ! Orduan zirezte debruaren batzarrean kausituko. Batzarreak orentsu bat irauner dautzue !... Eta hortan ez adiorik !

— Eta saria ? Debruak zer sari galdatuko dauku ?

— Batzarrea bururatu-eta atherako zireztenean, zuetarik azken geldituko dena, hura debruaren !... Eta bethikotz !..

Atch ! Atch ! Atch !... Bazen hor eiki kaskoari hazka artze-koa ! Bai denek debruaren ezagutza egin gogo, bainan nehork ez haren gelditu nahi. Azkenean Axular-ek trenkatu auzia : hura egonen zela azken !

Abiatu ziren beraz delako mendirat buruz ; gauaren erdia eman zuten bidean. Ilhargi churi baitzen, harpe sartzea ere hatzeman errechki. Zu eta ni orobat sartuko ginen berehala ; heiek ere guk bezala eginen bide zuten, Axular-ek ez baliote erran :

— Dugun har hemen bizpahiru orenen deskantsua ! Barne hortaraz geroztik, izanen baitugu gure indar guzien beharra !

Nola erran ezetz debruaren eskuko gelditu behar den bati ? Lo kuluchka bat eginik, goizeko lauak irian sartu ziren harpe ziloan, bat bertzearen ondotik.

Azkena barneratu zeneko, mendi guziaren erroz-gora emaiteko ortzi karraska izigarri batek zafratu zituen bazter guziak. Eta ordu ber-berean gure ichtudiantak kausitu ziren barne handi, egin handiagoko batean. Barne hartan itsutzeko argi bat ; erdi erdian halako aldare bat ; aldarearen lau zangoak, lau debru konkortu ; aldare gainean alimaleko akher bat, begi-beharri-sudur-aho hots zilo guzietarik sua zariona ; inguruan kokoriko debru andana bat nehork ezin kondatua ; aintzin-aintzinean denen buruzagia, nik uste, isentsu erretzen ari delako akherrari.

Bertzeak bertze, horra zer zuten ikusi gure muthiko gazteek, heien begiak nolazpeit egin zirenean hango argiari. Harritu-baldituak han zauden geldi geldia ! Bizkitartean doi bat beren-baitara-tzearekin eta kasik ohartu gabe hasi ziren denak kurutzeseinaleka ; bainan batto egiten zuten aldi bakhotch harpe guziak bere barnekoekin jauzi bat egiten baitzuen, debru bat hurbildu zitzaioten geldirik egoiteko beren onetan.

Azkenekotz izialdurarekin erdi-hilak han zaudelarik, tanpez argia hil zen eta delako isentsu erretzalea ilhunbeka ethorririk heien alderat, oihu samín batean egin zioten :

— Akabo ! Akabo ! Kanporat hortik orai eta laster, azkenaz bertze guziak !

Hinka lazarria. sari izigarriaren pagatzeko tenorea jina zuten beraz. Erran bezala, bat bertzearen ondotik hasi ziren atheratzen, Axular azken.

Errana dugu naski harpeak bere athea iguzki-alderat zuela.

Atheratzen hasten dira beraz ichtudiant gazteak : lehenik lehen, gero bigarrena, gero azkenaren aintzinekoa. Huna orai gure Axular-en aldia. Debrua lotua zaio jadanik, hartua du bere aztaparretan :


— Hi haiz azkena ! Hi haiz ene saria !

— Ni azkena ? dio ihardokitzen Axular-ek batere khechatu gabe. Ni azkena ? Baduk burutik ? Hor duk azkena ene gibelean ! Lot hakio haatik laster eta ongi, debroz egina baita !

Eta debruak, Axular utzirik abian, hartu zuen bere saritzat Axular-en gibeletik heldu zena, erran nahi baitut : iguzkiak ordu berean harpe-athea argituz Axular-i egiten zion itzal handi eta ederra !

Eta horra nola Axular-ek bere itzala behin bethikotz utzi zuen debruaren aztaparretan !

L. LÉON.





LES CITATIONS d' **AXULAR**

Le *Guero* porte dans son sous-titre la mention suivante : « *Escritura saindutik, Eliçaco Doctor etaric eta liburu debocinozco etaric, Axular Saraco errotorac vildua* », ouvrage « qu'Axular, curé de Sare, a tiré des saintes Ecritures, des Docteurs de l'Eglise et des livres de dévotion. »

Axular cite environ 350 textes scripturaires, que généralement il paraphrase savoureusement, au lieu d'en donner une traduction littérale.

Dix Docteurs sont mis à contribution : les plus utilisés sont saint Jean Chrysostome, saint Augustin en ses Confessions, saint Thomas d'Aquin ; on rencontre aussi saint Jérôme, saint Grégoire, saint Ambroise, saint Basile, saint Isidore, saint Bernard, et saint Pierre Damiens.

Voici d'autres écrivains ecclésiastiques dont il a profité : a) parmi les saints, saint Cyprien et saint Climaque ; b) parmi les théologiens, Hugues de St-Victor, Soto, Navarrus, oncle de saint François-Xavier ; c) l'hagiographe Suri, le diacre Cassien, Ludolphe le Saxon ; d) le seul poète chrétien cité par Axular est Ausone, dont il ne cite d'ailleurs qu'un vers ; e) enfin, au besoin, Axular a recours aux enseignements de ses professeurs (« *hala erraiten du ene escola nabusi batec* » (p. 103).

Dans le *Guero* on trouve des textes assez nombreux d'écrivains païens : a) les poètes les plus cités sont Ovide et Juvénal ; puis viennent Horace, Martial et Lucain avec Plaute et Térence ; b) faits et anecdotes sont tirés surtout de Plutarque et Hérodote, mais aussi de Salluste, Elianus,

Aurélius, Aulu-Gelle et Josèphe ; c) Pline d'Ancien fournit des données d'histoire naturelle ; d) les philosophes ou moralistes ont leur mot à dire, surtout Sénèque, mais on rencontre aussi Cicéron, Diogène Laërce et même Aristote.

Enfin Axular a puisé dans les « Gloses », le dictionnaire de Charles Estienne, les Codes de droit civil, et dans le trésor oral des proverbes populaires.

On s'est souvent demandé comment un curé de Sare pouvait avoir à sa disposition une telle quantité de textes, à une époque où les livres étaient rares et coûteux.

En réalité point n'était besoin d'une vaste bibliothèque pour avoir à sa portée une documentation impressionnante. Les compilations abondaient sous des titres variés : *Catenaë*, *Exempla*, *Dicta factaque memorabilia*, *Antiquae lectiones*, etc. Ces recueils de Petrus Crinitus, Alexander ab Alexandro, Leonicus, Caelius Rhodiginus, Fulgose, Ravisius Textor, Louis de Grenade, et autres collecteurs de citations antiques étaient fort à la mode aux XVI^e et XVII^e siècles.

Axular possédait les *Œuvres* de Luis de Grenade. C'est indéniable. Il suffit de comparer l'édition Vivès, Paris, 1862, avec le *Guero Guero* et l'on trouvera que les pages 3 du tome VIII, 66 du tome XIV, 114 du tome XVII, 496 du tome III, 479 et 501 du tome XI ont été à l'origine des pages 35, 99, 87, 232 et 501 d'Axular. Ce ne sont là que des exemples pris au hasard.

Axular s'inspire d'ailleurs très librement de ses sources et son œuvre reste personnelle par la composition, le mouvement et le style.

P. LAFITTE.






AXULAR-EN ZONBAIT LERRO

AXULAR handiaz balitake hainitz erraiteko, bainan iduri zaiku haren ezagut-biderik hoberena GERO-aren irakurtzea litekela.

Guti bada guti, huna hemen segidan zonbait lerro haren liburu ederretik hartuak. Gure irakurtzaleek jasta bederen izanen dute hainbertze aipatu dugun eskuara charretik.

Oraiko ortografaz jauntzi dugu, irakur-errechago izan dadin.




Chinhaurria

Zoaz, nagia, chinhaurria gana, eta kontsidera itzatzu haren bideak eta bideskak, joan-ethorriak eta itzul-inguruak, nekeak eta trabailuak ; eta ikhasiko duzu zuk ere nola behar duzun aitzinerat eta bethi ere bizi, ibili eta gobernatu. Hark erakuslerik eta kidaririk gabe, berak bere buruz biltzen du udan, neguaren iragaiteko behar duen mantenua, bazka eta bihia. Eta bihi hura gordetzen du lurrean barrena, berak eginikako ganbarretan, eta bihitegietan. Eta hain da zuhar eta goithatu ezen kanpoan deus ezin izanez, bere bilduetara bildu behar duenean, lehenik hozitu behar duen burutik hasten baitzaika bihiari : zeren bertzela sor liteke bihi hura, buztan liteke, belhar bihur liteke : eta gero handik harat, alfer-lan gertha lekidikaio bere leheneko zuhurtzia guztia.

Are gehiago, hozidurak janez geroz ere, lurraren humidurak

eta hezetasunak gainerakoa ustel eztiaron, atheratzen du noizik behin kanporat, airatzera eta iguzkiztatzera : eta orduan denbora onaren seinalea dateke. Eta halatan eta hala iragaiten du chin-haurriak bere negua ; eta erakusten dio bat bederari , nola eta zer moldez behar duen mantenatu, gobernatu, eta alferkeria guztiak utzirik, bere denboran trabailatu.

(Cap. I § 3.)



Bekatorearen kontu gaichtoa

Kontuaren gaichtoa ! Fidantziaren erhoa !

Fidatzen zara, bekhatu eginez gerozko kalteak erremediatuko dituela Jainkoak, eta etzara fidatzen eta ez orhoitzen erremedia ahal ditzakeiela halaber bekhaturik ez egitea-gatik ethor ahal dakidizketzun atsegabeak eta egitekoak. Behar eztenean fidatzen zara, eta ez behar denean. Behar eztenean iduritzen zaitzu Jainkoaren miserikordia handi, eta ez behar denean. Hamar ezkuturen behar zarenean, edo bertze premia bat eta eskastasun bat duzunean, etzara fidatzen, eztuzu esperantzarik, prestuki bizitzen zarelarik eta bekhaturik egin gabe egoiten zarelarik, zeure premia eta eskastasuna estal ahal diazaizula Jainkoak Eta hala zeure esperantza-gabearekin egiten duzu bekhatu, ebasten duzu, egiten duzu ohoineria bat. Eta egiten duzu ohoineria hura esperantzaz, gero berdin Jainko meserikordiosak barkhatuko deratzula hartako bekhatua. Itsutasunaren handia !

Orai, Jainkoarekin adiskide zarenean, bekhaturik gabe zaude-
nean, eztuzu esperantzarik Jainkoak zure gatik deus daidikeiela,
zure premia estal ahal dezakeiela ; eta gero, etsai zarenean eta
bekhatuz bethea zaudenean, duzu fidantzia, guztiak barkhatu-
rik, bere garazia eta loria, hain gauza handiak, baliosak eta er-
diesteko gaitzak, emanen derauzkitzula ! Gauza errazean etzara
fidatzen eta bai gaitzean. Bekhatu egiten duenarentzat dadukazu
Jainkoa handi, zabal, franko, liberal ; eta, bekhaturik egin gabe,
prestuki bizitzen denarentzat, estimatzen duzu dela hertsia, mehar,
eskas eta abarizios.


Guztietan zabilta eta gabiltza nahasiak, errebelatuak eta huts
eginak.

(Cap. XI § 4.)

Sagarroia

Sagarroia, bere egitez ere, nekez erditzen da ; baina are bere faltaz nekezago. Zeren nola larruan baita latz eta gaztaina-karloa bezala puntaz eta arantzez bethea ; eta umeak ere, bera bezala, latzak eta arantzetsuak baititu ; ume hek, erdi behar duenean, bere arantzez eta karloez min egiten diote ; eta halatan minari errendaturik, erditzeko meneratzen denean, barrenat sartzeintu eta han ahal bezanbat edukitzeintu : Eta nola hala dadutzan bitartean ere handitzen eta gogortzen baitira ume hek ; eta alabainan erdi behar, edo hil ; handik azkenean, harri baten kontra permaturik, lehen eginen zen baino nekezago eta penazago erditzen da. Bada haur beror obra onen egiteko luzamendutan dabilan bekhatorea baithan ere gerthatzen da. Zeren nola konbertitzea eta obra onen egitea erditze bat bezala baita, halatan, zenbatenez eta gehigo baitago, hanbatenez obra on hetzaz, nekezago erditzen da. Beraz hunelatan, lehen baino lehen izanen da hoberenik, eta errachenik obra onen egitea eta bekhatuatarik ilkitzea.

(Cap. VI.)




Dembora

Izatu da erran duenik dembora eztela deus, hartaz orhoitzapenik edo pentsatzerik eztenean. Eta halatan lo datzanari etzaitz bezala iragaiten zaikala, zeren orduan ezpaitu hartan pentsatzen eta ez gogorik edukitzen.

Urarekin nahi nuke komparatu dembora. Zeren demborak eta urak elkharren idurika handi baitute. Ura bethi doha, bata bertzeari darraika. Iragana aitzina da, ethorkizunekoa gibela dago, eta aitzinekoak aitzinean guti irauten du. Eztu nehork iragan den uretik hartzen, eta ez ethortzeko dagoenetik ere : aitzinekotik, iragaitean, presentean denean behar da atrapatu.

Hala da bada, eta hala egin behar da demboraz ere : presentekoari lot zakitza, hari probecha zakitza. Zeren bertzela, haize ona denean, bela egin gabe gelditzen den untzia bezala, geldi ahal zindezke zu ere.

(Cap. XII.)




Usoaren chorokeria

Usoak eztu bertze hegaztinek bezala edatean burua goiti altchatzen. Edan gogo duena, abreak bezala hatsik hartu gabe, kolpe batez edaten du. Bertze hegaztinek edateko zurka guztietan, ahatarak bakotzean burua goiti alchatzen dute. Eta badirudi ezen naturalezak berak erakutsirik egiten dutela hala. Zen nolako orduan baitute perilik handiena, zeren orduan baitaude geldienik urera beha ; eta orduan baitira ihiztariez ere zelatatuak, barrendatuak eta guardiatuak, halatan daude hek ere iratzarriak orduan ; eta edaten duten ur chorta guztietan ingurunera behatzen dute eta burua goiti, guardia egiteko bezala, altchatzen dute. Baina usoak eztu holakorik egiten, ahospez dago ase arteino, eztu bitartean bururik altchatzen, eta ez ingurunera behatzen. Eta hartan da ageri usoaren inozentzia eta ergelkeria, perilik gehiengan baita erhoenik eta antsegabenenik. Hala da bada bere gogo guztia emaztetan ibenia dadukana ere. Etsaia zelatan dago kanean, perilik gehien duenean, da galduenik eta erhoenik. Zeren bere edate hartaz eta plazeraz baizen, espaitu deusez ere bertzez konturik egiten.

Cyro emperatore handi hura, hain itsutu eta ergeldu zuen Apama bere amoranteak, non hartaz nahi zuen guztia egiten baitzuen. Alde batetik eta bertzetik bekarrondokoka hari zaikan, batean bizarra, bertzean beharriak thirutzen zerautzan : haur batekin bezala harekin dostatzen zen. Eta guztietan emperadore erhoa, hortzak hirriturik, irriz, beha zegokan ; mirailean bezala hartan miratzen zen ; haren alegeratzeaz alegeratzen zen, eta tristeziaz tristetzen. Eta emazte gaichtoak batzutan bere burua berariaz heserre-iduri egiten zuen : eta orduan emperadore zoroak, ahal ziren asmuak eta entseiuak balakatzeko eta baketzeko egiten zituen. Amorantea zen nabusi, no zen to ; emaztea gizon ; oiloa oilar. Erran behar da esku handia hartzen duela emazteak amurus itsuaren gainean, halako emperadore bat, ema ez deus batek hala errendatzen duenean :

(Cap. XXXI, § 1.)



Konzientzia


Hunetan da ageri maite gaituela geure Jaungoikoak, zeren geure baithan barrena, geure etchean, bertzetara konseilatzerak joaiteko premia gabe, emaiten baiteraku behar dugun nabusia, eta erakuslea, zein baita kontzientzia. Eta halatan kondentatzen dira, lege naturalaren arauaz bizitzen ez tiren Jentilak.

Merkatari batzuek egiten dituzte sal-erosi nahasiak, tratu gaich-

toak, lukureriazkoak, enganamenduz betheak. Eta gero joaiten dira bere kofosoretara edo bertzetara, galdegitera, ea tratu hek justu direnz, egin ahal ditezkeienz. Eta joaiten dira mengoa gabe, premia gutirekin. Zeren hain da klar eztirela justu, non baldin bertzetan ibili gabe, galdegin baliazote berek bere konzientziari, hark berak erakuts bailizaie egia, eta handik, berek kondena bailitzakete bere buruak; zeren bere konzientzian barrena ediren bailezakete, eskiribaturik bezala, galdez dauden guztiaren errepuesta. Utzi nahi badigu konzientziari, bera da asko, errelatzetik begiratzeko, artez eta chuchen erabiltzeko. Zeren badaki behar dena, eta bere egitez guztia da onera emana. Eta San Thomasek dioen bezala, ontasunari egiten dio besta eta begitarte, eta gaichtatasunari liskar eta beltzuri: *Synderesis dicitur instigare ad bonum, et murmurare de malo*. Beraz bere kontzientziaren arauaz, haren buruz eta konseiluz gobernatzen eta gidatzen dena ongi da, alegera da, kontent eta pagu da. Baina bertzela, bere konzientziaren kontra dabilana, gaizki da, beltz, ilhun, goibel eta triste da.

Eta arrazoinekin da hala. Zeren nola zangoa, besoa, edo gorputzeko bertze parte bat, bere tokitik eta junturatik ilkitzen, makhurtzen, aldaratzen edo enhardatzen denean, ezin sosega baititeke, eta ez pausa, bere tokira eta lekhura bihur arteino; hala bere konzientziari gibela emanik, bekhatutan dagoena ere, nola behar den junturatik eta arrazoin naturalak erakusten dioen bidetik eta ordenantzatik aldaratua, eta ilkia baitago, ezin sosega diteke, eta ez pausa, hala dagoeno. Bere bidean eta tokian dagoenean, nola baitago bekhaturik eztuenean, orduan da alegera, arrai, aise, kontent eta bere gogara.

(Cap. XLV, § 1.)



Filosofo baten konzientzia

Egun batez joan zituen filosofo batek zapata batzuk bere etchera, prometaturik zapatagileari, denbora gutiren barrenean pagatuko zerautzala. Eta abiatu zen bere hitzean eta ephean pagamenduaren egitera. Baina entzunik ezen hil zela diruak behar zituen zapatagina, bihurtu zen alegerarik bere diruekin etcherat, iduriturik ezen hainbertzez kito zela: eta eduki zituen zenbait denboraz diruak berekin. Ordea bitarte hartan hain jaten eta erratzen zuen bere baithan barrena bere konzientziak, ezen ezin pairatuz joan baitzen bere diruak harturik zapataginaren etchera; eta han egotzi zituen, erraiten zuela, zapataginarekin berarekin mintzo izan bailitz bezala: Bertze guztientzat hil bahaiz

ere, oraino bizi haiz enetzat. Totzik bada, haritzak heure zapa-
ten diruak, eta utz-tak niri bakea. Deskargua egin arteino etzuen
utzi bere konzientziak sosegatzera ; anarteraino bethi eman zioen
garrri eta nario. Ezta egungo egunean mundua hunein sentikor
ez eta konzientziatsu.

(Cap. XLV, § 4.)

Jainkoaren uztarria


Kontsolamendu handia da, bere trabailuetan eta egitekoetan,
lagun on baten izaitea. Beraz kontsola ahal gaitzke gu ere, zeren
geure egitekoetan Jesu Kristo lagun baitugu. Obra onetan zabilt
zanean etzara behin ere bakharrik, zurekin da Jainkoa, laguntzen
zaitzu, kidatzen zaitu. Eta halatan da Jainkoaren lege saindua
erraz eta arin, zeren Jainkoak berak gehien partea jasaiten eta
eramaiten baitu.

Jainkoaren manamenduak, idien orgak, chaluparen arrauak,
untziaren belak, eta hegaztinaren hegalek bezala dira. Orga
karga da, pisu da. Ordea idiek, karga harekin, karga gehiago
eramaiten dute. Badirudi karga laguntzen zaiela, karga eramai-
ten. Arrauak eta belak ere pisu dira ; ordea hekin batean arin-
kiago eta lasterrago doatzi untzia eta chalupak. Hegaztinaren
hegalek ere badute bere karga, eta pisutasuna. Ordea karga hark,
ez kargatzen, baina arintzen du hegaztina. Hala erraiten du San
Agustinek... Hegaztinak jasaiteintu lurean bere hegalek, eta
airean hegalek jasaiten dute hegaztina : jasaiteintu eta jasaiten
dute. Erran bazeneza : Hegaztina haur trabatzen eta kargatzen
dute bere hegalek, eta urrikaldurik, edeki baziniatzo, kalte
gehiago ziniatzaio, probetchu baino ; zeren airatzen eta hegal-
datzen zena lurean geldi bailiteke.

Beraz karga badira ere, on dira orgak, belak, arrauak, hega-
lak, eta bai Jainkoaren lege sainduaren uztarria ere : zeren uztarri
haur karga izana-gatik ere, hunekin batean hobekiago, eta aise-
kiago iragaiten baitira mundu hunetako trabailuak eta atsega-
beak. Zeren Jainkoa bera legearen emailea, legearen begiratzen
eta konplitzen laguntzen baitzaiku : eta hartarakotzat uztartzen
bezala baita gurekin. Egia haur ezagaturik, erraiten zioen San
Agustinek Jainkoari, hitz gutiz eta ederki : *Da quod jubet et
jube quod vis*. Jauna, emazu manatzen duzuna, eta gero mana
ezazu nahi duzuna. Zeren indarra franko denean, eta laguna ere
ona, ezta karga gatik antsia.

Beraz Jainkoa bera jasaiten laguntzen zaikunaz geroztik, arra-
zoinekin erraiten da haren uztarria plazent dela, eta karga ere
arina.

(Cap. LXI, § 4.)

Pedro de Axular
Doktor Irudutea Lehen


Pedro de Axular
Doktor

P. de Axular Doktor

Horra nolako izkirionea zaukan
Pedro de Axular handiak. Sinadura
horiek Sara-ko paper zaharretarik
athera ditugu.

Faint, illegible handwriting, possibly a signature or title.

Faint, illegible handwriting, possibly a date or address.

Faint, illegible handwriting, possibly a name or address.

EDITIONS « AINTZINA »

Compte Ch. Postal
Bordeaux : 929.70

Publié sous la responsabilité
de Messieurs Marc LÉGASSE
et André OSPITAL

Le Gérant : Jean DUBOSCQ.

Autorisation Pd. 202.

IMPR. « LA PRESSE » - BAYONNE

Petru de Apulian
rector 29